


## BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure helburua, plastikozko botilak bildu eta hauen bidez modako kamisetak eta sudaderak egitea da. Botila hauek biltzeko, makina batzuk instalatuko ditugu Gipuzkoako hainbat herritan, eta kontsumituriko botila hutsak botatzen dituenak, gerora, saria izateko aukera izango du.



Era honetan, jendea ingurugiroa zaintzeko kontzientzia hartzera bultzatu nahi dugu, dena dela, beharrezkoa iruditzen zaigu makinara bere botilak botatzen dituenak saria izatea, gure negozioarako lehengai falta izateko arriskua genukeelako bestela.



Gure balioa kuantitatiboa zein kualitatiboa izango da. Alde batetik, kuantitatiboa dela esango dugu **arrazoizko prezioa** izaten saiatuko garelako. Hala ere, gure produktuak **kalitatezkoak** eta ekoizpen prozesu konplexu baten emaitza izango direnez, prezioa igo daiteke.

Bestetik, kualitatiboa izango da, arroparen produkzioan **ingurugiroa zaintzeaz** gain, **diseinuari** ere garrantzi handia emango diogulako, hau da, gure produktuek itxura ona izan dezaten bermatuko dugu. **Erosoak** eta **erakargarriak** izatea bermatuko dugu.



Azkenik, gure produktuak **eskuratzea erraza** izango da, izan ere, web orri bat eta Tolosan kokatutako denda bat izango ditugu.